

Oroipen bat Pablo Alzola jaunari.

DONOSTIYAN jayo, Bilbon ill, bi erri abentzako, ta Euskal-erri guziarentzako izan dira Alzola argidotarraren azken gabeko lan gain gañekoak.

Gure kondaira sustrai sustraitik esagutu ta zabaltzen, gure asaben oitura zar zarrenekoak somatzen, eleizetako ta jauregietako edertasun apaingarriak azaltzen, arkaitz zuloetako eskutapen antziñekoak argitaratutzen; orra zertan igaro diran bere egunak.

Eta guziya Euskal-erriaren izen atsegiña al guziya goitutzeko.

Bi itzekin esan liteke Alzola zer izan dan: azkarra ta langillia.

Bai, azkarra, buru argiya, asko jakiña; ta langillia, alperkeriya zer dan jakin gabe ludi ontatik jua dana.

Eta azkarra ta langillia batetik, ta Euskal-erria-ren ganako naitasun bero, pizkor eta sutzua bestetik, ez dago esan biarrik zenbat sor diyon gure lur maitiak.

Ez dira egunero sortzen Alzola bezelako gizonak; ondo biarrian arkitzen bagera ere, ta onlako seme ospetsua galtzian malko samintsuak isurtzen dira Euskal-erri guziyan.

Jaungoikoak bere beso kupitzuetan jaso dezala gure EUSKAL-ERRIA-ren lagun samur eta estitsu arren arima, biyotz biyotzetik otoitz egiten degun bezela.

EUSKAL-ERRIA
